

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**15/2020 Foru Araua, urriaren 14koa, 10/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, irailaren 8koa, baliozkotzeko dena, onesteko Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren eta Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauaren aldaketak, COVID-19aren ondorioz**

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko urriaren 14an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

15/2020 Foru Araua, urriaren 14koa, 10/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, irailaren 8koa, baliozkotzeko dena, onesteko Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren eta Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauaren aldaketak, COVID-19aren ondorioz.

#### HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, irailaren 8ko 10/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onesteko Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren eta Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauaren aldaketak, COVID-19aren ondorioz.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

**ARTIKULU BAKARRA.** Baliozkotuta geratu da irailaren 8ko 10/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onesteko Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren eta Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauaren aldaketak, COVID-19aren ondorioz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 14a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**